



AGINDUA, INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKAKO SAILBURUARENA, HONAKO DEKRETU-PROIEKTU HONEN ALDEZ AURREKO ONARPENA ERABAKITZEN DUENA: IZKI (ES2110019) KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMU IZENDATZEKO DENA ETA, KBE ETA HEGAZTIENTZAKO BABES BEREZIKO EREMU (HEGAZTIENTZAKO BBE) IZANIK, EREMU HORRETAN BETE BEHAR DIREN KONTSERBAZIO-NEURRIAK ONARTZEN DITUENA.

2010eko irailaren 6ko Aginduaren bitartez, Atlantikoko eskualde biogeografikoko kontserbazio bereziko eremuak (KBE) eta Atlantikoko eta Mediterraneoko eskualde biogeografikoetako kontserbazio bereziko eremuak (KBE) izendatzeko eta bi eskualde horietako KBEak eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (Hegaztientzako BBE) kontserbatzeko neurriak onartzeko den Dekretua onesteko espedienteari hasiera ematea erabaki zen. Zerrenda horretan, Izki (ES2110019) KBE eta Hegaztientzako BBE gisa agertzen da.

Prozedura hasi eta beharrezkoak ziren azterlanak egin ondoren, ikusi da eremu horretan Batasunaren intereseko 30 habitat-mota daudela; horietatik, 10 lehentasunezkoak dira. Eremuan, gutxienez, 92/43/EEE Zuzentarauaren (Habitaten Zuzentaraua) II. eranskineko bi flora-espezie, II. eta IV. eranskinetako 14 fauna-espezie, bakarrik II. eranskinean agertzen diren lau espezie eta IV. eranskineko 27 daude. Aipatzekoa da, gutxienez, 2009/147/EE Zuzentarauaren (Hegaztien Zuzentaraua) I. eranskineko 38 hegazti-espezie egotea. Izki eremuak duen kasuistika berezi hori dela-eta, komeni da mendialde horretarako dekretu-proiektu bat berariaz lantzea.

Gainera, Izki KBE/Hegaztientzako BBEda kontserbatzeko baliabideak lantzeko lan teknikoak egin bitartean, egokitzen jo da Naturagune Babestua zabaltzea, Onura Publikoko Mendien lurzati guztiak eta bereziki garrantzitsuak diren Batasunaren intereseko habitaten hainbat azalerak sartzeko.

Baina eremu horrek Naturagune Babestuen tipologia hirukoitza biltzen du, Parke Naturala eta Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremua zein Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua baita. Beraz, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren (NKLTB) 18. artikuluari jarraiki, eremu hori antolatzeke mekanismoak koordinatu egin behar dira, eremuaren plangintza integratuko duen dokumentu bakar batean biltzeko; horrela, kategoria bakoitzean aplika daitezkeen araubide desberdinek osotasun koherente bat osatuko dute.

Parke Naturalen kasuan, hainbat tipologia arautzen dituen dokumentu bakarraren lege-aurreikuspena ezin da gauzatu, legeak berak ezartzen baitu tipologia horiek Natura Baliabideak Antolatzeke Plan (NBAP) batek (NKLTBaren 20. artikulua) eta EKPZ batek (NKLTBaren 27. artikulua) arautu behar dituztela. Hala ere, baliabide horiek Naturagune Babestuaren (NB) tipologia desberdinen premiak betetzeko baliagarriak izan daitezke, nahiz eta helburu eta eduki desberdinak dituzten.



Gainera, onartzean, kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzak eta foru-organismoek dituzten eskumen konkurrenteek koordinazio-ahalegin berezia dakartela. Izan ere, NBaren tipologia guztien deklarazioa Eusko Jaurlaritzari dagokio edonola ere (NKLTBaren 19.1 artikulua). Parke Naturalei dagokienez, NBAPa bideratzea eta onartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da (NKLTBaren 7.a artikulua); EKPZrako, aldiz, prozedura bifasikoa jarraitzen da. Hau da, lehenik, foru-organismoek bideratzen dute eta organo horiek onartzen dituzte Parke Naturalaren kudeaketari dagozkion jarraibideak; eta bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak bideratzen du, araudiari dagokionez (NKLTBaren 29.e artikulua). Era berean, KBE eta Hegaztientzako BBEei dagokienez, helburuak eta araudiak onartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da (NKLTBaren 22.5 artikulua lehen paragrafoa) eta neurriak foru-organismoek dagozkie (NKLTBaren 22.5 artikulua bigarren paragrafoa). Nolanahi ere, baliabide desberdin horiek guztiak EHAAr argitaratu behar izaten dira beti.

Gaur egun, koordinazio hori ez da posible izan. Izan ere, beste eremu batzuen egokitzea atzeratzea ekarri duen NBAP batzuen tramitazio luzeak sortutako eragozpenez gain, behin betiko onartzeko zain dagoen EKPZ dokumentuaren alderdi arautzailea EAEko Natura Kontserbazio Legeak ekarritako arau-aldaketaren aurretik bideratu zen, eta ez ditu betetzen NKLTBaren 18. artikulua aipatzen duen dokumentu bakarraren izaeraren parametroak. Artikulu horren arabera, dokumentu horrek honako hau jaso beharko luke: batetik, Natura 2000 Sareko eremua kudeatzeko jarraibideak eta neurriak, 22.5 artikuluekin bat; eta, bestetik, 27. artikuluari dagokion Izkiko Parke Naturalaren Erabiltzeko eta Kudeatzeko Plan Zuzentzailea.

Dekretuaren eduki eta onartze-prozedurari dagokienez, adierazi beharra dago prozedura hasi ondoren martxoaren 11ko 1/2010 Legeak eta urriaren 10eko 2/2013 Legeak Natura 2000 Sareari dagozkion lege-aldaketa batzuk eragin dituztela Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legean; horren guztiaren ondorioz, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbazio Legearen testu bategina sortu da; horrela, behar bezala betetzen dira bertan lege horiek.

Horregatik, Dekretu honen helburua Izki Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzea eta Habitaten Zuzentzarauaren 6. artikulua horrelako KBEetarako eskatzen dituen kontserbaziorako helburuak eta neurriak onartzea baino ez da; beraz, 18. artikulua ezarritakoa betetze aldera, dokumentuak egokitzea geroko utzi da, azken xedapenetan lehenengoan jasotakoarekin bat.

Dekretu-proiektuak, beraz, artikulua biltzen dituen zati labur bat eta bi eranskin ditu, eta NKLTBren 22. artikulua arabera Eusko Jaurlaritzaren eskumenean diren izendapenen alderdiak jasotzen ditu: lekuaren eta bere mugaketaren kartografia, izendapena arrazoitzen duten Batasunaren intereseko habitat motak eta animalia- eta landare-espezieak, horien kontserbazio-egoerari buruzko balorazioa, lekuak kontserbazio helburuak eta jarraipen-programa. Foru-aldundiaren eskumena KBE/Hegaztientzako BBEak kudeatzeko gidalerroei dagokie, eta Dekretu honen eranskin gisa argitaratuko da, Eusko Jaurlaritzak ezarritako helburuetan oinarrituta foru-organismoak landu eta onartu ondoren. Horretarako, bi administrazioen

arteko koordinazio-bideak garatu beharra dago, emaitzak koherenteak eta eraginkorrak izan daitezen eta ahalbidetu dezaten herritarren parte-hartzea eraginkorra izatea.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legea betetze aldera, eta jadanik dekretu-proiektu egituratu bat landu denez, 2010eko irailaren 6ko Aginduko planteamenduekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Aldez aurretik onartzea Izki (ES2110019) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko den eta, KBE eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (Hegaztientzako BBE) izanik, eremu horretan bete behar diren kontserbazio-neurriak onartzen dituen dekretu-proiektua.

Bigarrena.- Dekretu-proiektua onartzeko prozedurarekin jarraitzea. Horretarako, 2012ko irailaren 6ko Aginduan jasotako izapideak egingo dira, agindu horretan erabaki baitzen Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) izendatzeko eta, KBE eta Hegaztientzako Babes Bereziko eremu (Hegaztientzako BBE) izanik, eremu horretan bete behar diren kontserbazio-neurriak onartzeko den Dekretua onesteko espediente, betiere kontuan hartuta NKLTBn jasotzen diren arau-aldaketek eskatzen dituzten egokitzapenak.

Hirugarrena.- Agindua eta espediente osoaren kopia Arabako Foru Aldundira bidaltzea, NKLTBren 22.5 artikuluko bigarren paragrafoan aipatzen diren kudeaketa-gidalerroak egin ditzan, proiektu honetan ezarritako kontserbazio-helburuei jarraiki.

Laugarrena.- Bi administrazioen arteko koordinazioarekin jarraitu beharko da, dokumentuak modu egokian kudeatzeko eta, ahal bada, dokumentu osoa jendaurrean batera erakusteko, Eusko Jaurlaritzari eta Arabako Foru Aldundiari dagozkien zatiak bilduz.

Vitoria-Gasteiz,

ANA OREGI BASTARRIKA
Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua
Sinadura elektronikoa